



**Espedientea: 2HI-071/16-P05-A**  
**ETXEBARRIA**  
**Etxebarriako Hiri-  
antolamenduko Plan**  
**Orokorra aldaketa.**

**Expediente: 2HI-071/16-P05-A**  
**ETXEBARRIA**  
**Modificación del Plan General  
de Ordenación Urbana de  
Etxebarria.**

TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN BIZKAIKO HIRIGINTZA PLANGINTZA ATALEKO IDAZKARIAK

TOMÁS ORALLO QUIROGA, SECRETARIO DE LA SECCIÓN DE PLANEAMIENTO URBANÍSTICO DE BIZKAIA DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO.

**ZIURTATZEN DUT** Bizkaiko Hirigintza Plangintzaren Atalak azaroaren 8an izandako 7/2016 bilkuran, bestek beste, honako erabaki hauek hartu zituztela, aho batez, kideen gehiengo osoa eratzen zuten bertaratutakoek:

**CERTIFICO** que en la Sesión 7/2016, de la Sección de Planeamiento Urbanístico de Bizkaia celebrada el día 8 de noviembre, se adoptó, entre otros, por unanimidad de los asistentes que conformaban la mayoría absoluta de sus miembros, los siguientes acuerdos:

**I.** Etxebarriako Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala: "NEMAK gunea" espedienteari eragozpenik ez jartzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea betetzeari eta honako hauetara egokitzeari dagokionez: Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legearen lurralde-antolamenduko tresnak, eta Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanen gaineko Legea aldatzen duen uztailaren 16ko 5/1993 Legean adierazitako alderdiak.

**I.** No poner objeción al expediente de Modificación puntual de las NNSS de Etxebarria: Área NEMAK, en lo que respecta al cumplimiento de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, a su adecuación a los instrumentos de Ordenación Territorial de la Ley 4/1990 de Ordenación del Territorio del País Vasco y a los aspectos señalados en la Ley 5/1993 de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los órganos Forales de sus Territorios Históricos.

**II.** Kontuan hartu beharko da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen Bigarren Xedapen Iragankorra betez, plan orokor eta arau subsidiario guztiak egokitu egin beharko zaizkie Lege honen zehaztapenei, eta egokitzapenok behin betiko onartuko dira 2021eko irailaren 20a baino lehen.

**II.** Se deberá tener en cuenta que, en cumplimiento de lo establecido en la Disposición Transitoria Segunda de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, todos los Planes Generales de Ordenación Urbana y Normas Subsidiarias del planeamiento deberán ser adaptados a las determinaciones de la Ley mencionada con anterioridad al 20 de septiembre de 2021.

**III.** Espediente hau behin betiko onartzeko, eskumena duen organoari ondoko egindako txostena bidaltzea: URA-Uraren Euskal Agentzia (I. eranskina). Ziurtagiri hori erantsita doa."

**III.** Remitir al órgano competente para la aprobación definitiva del expediente el informes emitido por URA-Agencia Vasca del Agua (Anexo I); que se acompaña a la presente certificación."

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, bilkuraren akta onetsi baino lehen, Vitoria-Gasteizen, 2016ko azaroaren 8an.

Y para que así conste, expido y firmo, con anterioridad a la aprobación del acta correspondiente a esta Sesión, en Vitoria-Gasteiz, a 8 de noviembre de 2016.

IDAZKARIA/EL SECRETARIO

Izpta./Fdo.: Tomás Orallo Quiroga